

Arrasate - Abenduak 22

**D**INUENEZ, EZINEZKUE DA NORA JO ASMATZIE NUNDIK GATOZEN JAKIN EZIEN. DINUENEZ, EZ DAU NORBERE BURUE ERRESPEATZEIK INGURUE ETA INGURUKUEK ERRESPETAU BARIK. DINUENEZ, EZIN DA ERANTZUN EGOKIRIK EMUN GALDERA EGOKIXAN FALTAN. DINUENEZ, EZ DA SAMURRE ZERBAITEN PARTE SENTITZIE BAKOITZAK BERE ALIE EMUTEKO ARDURA HARTZEN EZ BADAU. DINUENEZ...

INOK ESAN BARIK BE, JAKINE DA, EGUNEROKVEN, BADAUELA GURE SUSTRAXEK ZEIN DIEN GOGORATZEKO BIHERRA, "EZ, EZETZ DALA" ALDARRIKATZEKO ETA INGURUNE OREKATU BAT SORTZEKO PREMINA, SEGUNDO BATZUTAN IXILIK GERATU, ARNASA HARTU ETA ZER ETA NOLA EIN NAHI DOGUN ERABAKITZEKO, NORBERAGANDIK HASITTE.

HORI DA, HAIN ZUZEN BE, ARRASATEKO HAINBAT KULTUR TALDEN, UDALAN ETA SANTAMAS KOMISINUAN NAHIKE: BIHERRIZEN HORREI ERANTZUNA EMUN ETA JAI GIRVEN KALERA ATERATZIA DATORREN ABENDUAN 22KO SANTAMAS EGUNIEN.

BADAKITZUE BA, ASTINDU ARMAIXUE, GOZATU KALE GIRVEN, JARRI ZUEN ALIE IKUSKIZUN, DANTZA, KANTU, BAZKARI ETA LAGUNARTIEN, GERTUEN FALTA DITTUGUNAK GOGUEN ETA IRIBARRE BAT ALDIEN.

Ondo pasau  
Santamasetan!!

Arrasateko  
HAINBAT  
KULTUR TALDE  
Arrasateko UDALA  
SANTAMAS  
KOMISIÑUE



---

## ABENDUAK 16, Eguakoitza

---

( 19:00 ) Uarkape pilotalekuan **Santamas pilota txapelketako finalak.**

( 19:00 ) Garagartzako Lezetxiki elkartean liburu aurkezpena:  
"Garagartza. Historia Etnografia Hizkuntza" Justo Jauregi-Arraburu;  
Joxe Letona.

---

## ABENDUAK 17, Zapatua

---

( 13:00 ) Herriko Plazan, borobileko dantza saio parte-hartzailea, **Lore Gazteak** eta **Txikitxu** taldeen eskutik. Olentzeroren gutun banaketa Tartalorekin.

( 19:00 ) Herriko Plazan, Santamasetako hirugarren kuadrilen arteko herri probak: **lokotx bilketa, txingak, trontza, lasterketa, zaku eramatea** eta **sokatira**. (Taldeak mistoak izan behar dira)

( 20:00 ) San Frantzisko elizan, **Goikobalu** abesbatzaren kontzertua, **Harreman** erakundearekin elkarlanean.


---

## ABENDUAK 18, Domeka

---

( 9:00-13:00 ) Kontzezinoko arkuan, Arrasateko Irratizaleen elkarteak antolatutako ekintza, **Munduko gazteluak diploma.**

( 9:30tatik aurrera ) VII. Santamasetako tenis eta padel txapelketako finalak, AKE-k antolatua. **Kategoriak:** gazteak, emakumeak eta gizonak.





( 10:00 ) Corazon de Encina Extremeñoen kultura zentroan **XXVIII Santamas xake txapelketa**, ekipoen arteko azkarrak. Arrasate-San Andres xake elkarteak antolatuta.

( 10:30-12:00 ) Herriko kaleetan zehar, **Santamas krosa** (*haurrak 5-14 urte*).

( 12:30 ) Herriko kaleetan zehar, **Kuadrilen arteko Santamas krosa**.

( 17.30 ) Herriko Plazan, haurrentzako **Ginkana mitologikoa**.

---

## ABENDUAK 21, Eguztana

---

( 18:00 ) **Erakusleiho lehiaketaren sari banaketa**.

( 18:30 ) **Etxafleroak**.

( 19:00 ) Herriko Plazan, Arrasateko **Erraldoi** eta **Kilikien konpartsa**.

( 19:00 ) Herriko Plazan, **"TXERRITA"** txerriaren aurkezpena.

( 19:00 ) Portaloitik hasita eta herriko kaleetan, **kantu kalejira Portaloi taldearen eskutik**.

( 20:00 / 23:00 ) Herriko Plazan, **Akerbeltz taldearekin dantzaldia**.

( 20:00 ) Amaia antzokian, **Bertso saioa**. *Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Oihana Iguaran. Gai jartzailea: Iker Iriarte.* AEDk antolatuta.

( 21:30 ) Herriko Plazan, **zezen suzkoa**.

---

## ABENDUAK 22, Eguena

---

( 9:00 ) **Etxafleroak**.

( 9:30 ) Herriko kaleetan, **Udalaxpe txistulari taldearekin diana**.

( 10:00 ) Laubide Plazan, **ganadu eta hegazti feria**.

( 10:00 ) Seber Altube Plazan, **fruta, barazki eta herriko saltokien erakusketa eta lehiaketa**.

( 10:00-14:00/17:30-20:30 ) San Frantzisko elizan **Belenen erakustaldia**. *Urtarrilaren 8ra arte egongo da zabalik, ordutegi honekin: 17:30-20:30 larunbat eta jai egun bezperetan izan ezik; abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.* **Antolatzailea:** "Izartsua" Arrasateko Belenzaleen elkarte.

( 10:30 ) Jokin Zaitegi Plazan eta Biteri etorbidean, **artisansu langintzen jarduera feria**.

( 11:00 ) Herriko Plazan, **taloak**.

( 11:30 ) Herriko kaleetan zehar, **kalejira:** *Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea, Arrasateko gaiteroak, albokariak eta txalapartariak.*

( 11:30 ) Herriko kaleetan zehar, **Iturengo joaldunak**.

( 11:30 ) Herriko kaleetan zehar, **Incansables txaranga**.

( 11:30 ) Herriko Plazan, **Arrasateko Trikitilari taldearen ekitaldia**.

( 12:00 ) Zaldibarren, **herri kirolak:** *Esti Almandoz harri-jasotzailea. Manu Kañameres 5 metroko alturan egurra mozten; Arkaitz Jauregi eta Julen Kañameres aizkoran; Maika Aristegi eta Irune Izkie aizkoran eta trontzan; eta Maika eta Oier Kañameres, Irune eta Imanol Kañameresen aurka lokotx biltzea eta trontza lehia mistoan. Peio Kañameres motozerrarekin irudiak lantzen.*

( 12:00 ) Seber Altube Plazan, **herriko saltoki, fruta eta barazki lehiaketaren sari banaketa**.

( 12:10 ) Herriko Plazan, **Lore Gazteak dantza taldearen saioa**.

( 12:50 ) Herriko Plazan, **Arrostaitz dantza taldearen saioa**.

( 13:45 ) Herriko Plazan, **Txerri dantza herrikoia**.

( 14:45 ) Azoka Plazan, **herri bazkaria**. *Txartelak salgai: Bengoa, Kajoi, Irati eta Iluntz tabernetan.* **Salneurria: 18€.**

( 17:00-20:00 ) Harresi Aretoan, "DINBI DANBA Mailukaren hotsa Bixente Barandiaran Arrasateko azken errementaria" **erakusketa**. *18:00etan Dokumental emanaldia. Abenduaren 23, 29 eta 30an 18:00etan ere dokumental emanaldia izango da. Sarrera doan. 24an eta 31n itxita.*

( 18:00 ) Uarkape Udal pilotalekuan **profesional mailako pilota partidak**. **Eskuz binakako txapelketa**.

( 19:00 ) Arbolapetatik, Seber Altube eta Herriko Plazaraino, **Batzen dantza herrikoia**.

( 19:30 ) Herriko Plazan, **Txerri dantza** eta **Larrain dantza herrikoia**, Arrasate Musikaleko haize taldearekin.

( 20:00 ) Herriko Plazan, **Txerri zozketa**.

( 20:00/23:00 ) Herriko Plazan, **dantzaldia Haitzama taldearekin**.

( 22:00 ) Gaztetxean, **DJ Makalaren saioa**. Kooltur ekintza eta gaztetxearekin elkarlanean.

---

## ABENDUAK 23, Eguakoitza

---

**Abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra arte** Biteri Plazan **patinaje pista**.

( 11:00-14:00/16:30-20:30 ) Seber Altube Plazan **artisans azoka**, Eskuaratean elkarteak antolatuta.

( 19:30 ) Amaia Antzokian, **Benito Lertxundiren kontzertua**.

---

## ABENDUAK 24, Zapataua

---

( 11:00-14:00 ) Seber Altube Plazan, **artisans azoka**, Eskuaratean elkarteak antolatuta.

( 11:20 ) **Txoronpio, Txoronpia eta Tartalok** Munar, Uribe Auzoa, San Andres, Aprendices eraikina, Zigorrola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte Olentzeroren gutunak.

( 13:15 ) **Txoronpio, Txoronpia eta Tartalo** Seber Altube plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Uarkapeko Udal Pilotalekuan.


( 17:00 ) Iturbide egoitzan eta 17:30 *Ospitalean*, **Goikobalu abesbatzaren emanaldiak**.

( 18:15 ) **Olentzeroren irteera**. *Ibilbidea: San Andres (Bañez Doktorea), Maiatzak 1 Plaza, Garibai, Maala, Portaloia, Erdiko Kale eta Herriko Plaza.*

( 19:00 ) Herriko Plazan, **Olentzeroren agurra**.

( 19:00etatik aurrera ) kaleetan zehar, **Goikobalu abesbatzaren gabonetako kantaldia**.





---

## ABENDUAK 27, Martitzena

---

( 18:30 ) Kulturateko areto nagusian, mahai ingurua  
"Emakume bertsolariak, ahazturatik diskurtso propiora",  
AED eta Ekin Emakumeak elkarteek antolatuta.

---

## ABENDUAK 29, Eguena

---

( 20:00 ) Amaia Antzokiko hallean,  
**Micah P. Hinson-en kontzertua**, Gaztemaniak  
egitarauaren barruan.

---

## ABENDUAK 31, Zapata

---

( 13:00 ) Amaia Antzokian, **Arrasate Musikaleko**  
**musika bandaren kontzertua.**

( 18:30 ) Kaleetan zehar **Txorbela Otxotearen**  
**emanaldia.**

Ondo pasau  
Santamasetan!!

# 2016eko Santamás jaíen Aurrekontua

	SANTAMÁS K.		UDALA	
	Irteerak	Sarrerak	Irteerak	Sarrerak
SANTAMASETAKO KUADRILA/ TALDEEN ARTEKO HERRI PROBAK	700€			
TXORBELA OTXOTEA			1.000€	
MITOLOGIA GINKANA	1.100€			
DANTZA TALDEEN UMEEN ERAKUSKETA	363€			
ETXAFLERUAK	125€			
ARRASATEKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAK	300€		1.500€	
KANTU KALEJIRA	200€			
BERTSO SAIOA	700€			
DANTZALDIK	3.405€			
ZEZEN SUZKOA	200€			
ERAKUSLEIHO LEHIAKETA			550€	
DIANA (BAZKARI TIKETAK)	260€			
GANADU ETA HEGAZTI AZOKA	11.400€		2.900€	
ARTISAU ERAKUSKETA	2.000€			
KALEJIRA (BAZKARI TIKETAK)	3.200€			
SOINU EKIPAMENDUA	500€			
JOALDUNAK	1.000€			
TXARANGA	1.600€			
HERRI KIROLAK	1.800€			
BARAZKI FRUTA ETA HERRIKO SALTOKIEN AZOKA			3.875€	
ARRASATEKO GAITEROAK			900€	
HERRI BAZKARIA	3.000€		500€	
PILOTA PARTIDUAK			12.000€	9.000€
TXERRIA (SARIA BARNE)	650€	5.900€		
OLENTZERO, TXORONPIO ETA TXORONPIA	4.100€			
SUA EGITEKO ABARRAK			250€	
INPRENTA LANAK	1.615€			
KARTELA ETA EGITARUAREN DISEINUA ETA MAKETAZIOA	600€			
HAINBAT GASTU	2.550€		2.350€	
AZPIEGITURA ALOKATZEA			11.000€	
SGAE			250€	
<b>GUZTIRA</b>	<b>41.368€</b>	<b>5.900€</b>	<b>37.075€</b>	<b>9.000€</b>

## Egitarauan jasota dauden abenduko hainbat ekintza:

BENITO LERTXUNDI	12.800€	14.000€
PATINAJE PISTA	31.000€	16.900€
GAZTEMANIAKEN KONTZERTUA: MICAH P. HINSON	3.200€	700€